

## Hiriko elikadura politikari buruzko Milango ituna

### 2015eko urriaren 15a

**Munduko biztanleriaren erdia hirietan bizi da, beraz, hiriekin egiteko estrategikoa dute** elikadura sistema iraunkorrek garatzeko eta dieta osasungarriak sustatzeko; elkarren artean desberdinak izan arren, hiri guztiak dira ekonomia, politika eta kultura berrikuntzaren zentroak, eta baliabide publiko, azpiegitura, inbertsio eta eskumen handiak kudeatzen dituzte.

**Gaur eguneko elikadura sistemen erronka da** jende ororentzako janari egoki, seguru, lokal, justu, osasungarri eta elikagarria etengabe eta segurtasunez eskura jartzea. Hala ere, hirietako elikagaien hornikuntzak hainbat oztopori egin beharko die aurre, besteak beste, eskuragarritasun eta banaketa desorekari, ingurumenaren hondatzeari, baliabide eskasiari, klima-aldaketari, iraunkorrek ez diren ekoizpen eta kontsumo moduei, eta janariaren galera eta alferrikaltzeari.

**Urbanizazio prozesu azkarrak eragin handia du gure planetan** —ekonomian, gizartean eta ingurumenean—. Bereziki azpimarragarria da hiriak elikagaiz eta urrez hornitzeko moduak berraztertze beharra, bai eta beste ondasun eta zerbitzu funtsezko batzuen hornikuntza ere.

**Hiri orotan agertzen dira gosea eta malnutrizioa, modu desberdinetan;** horiek zama handia bihurtzen dira banakoen osasunari eta ongizateari dagokienez, eta kostu sozial eta ekonomiko nabarmena dute familia, komunitate, udal eta estatuentzat.

**Nekazaritza-enpresa familiarrek eta elikagaien ekoizle txikiek** —bereziki, hainbat herrialdetako emakume ekoizleak— funtsezko zeregina dute hiriak eta inguruko lurraldeak elikagaiz hornitzerakoan, elikagai-sistema erresiliente, bidezko eta kulturalki egokiak babesten laguntzen baitute. Elikagai-sistemak eta balio-kateak dieta osasungarrietarantz orientatzeak kontsumitzaileak eta landa zein hiri ekoizleak berriro elkarrengana hurbiltzea ahalbidetzen du.

**Hirietako eta hiri inguruetakoko nekazaritzak hainbat aukera eskaintzen ditu** biodibertsitatea hiri/eskualdeetan eta elikadura-sistemetan kontserbatu eta integratzeko; horrek sinergiak sortzen lagun dezake, elikadura eta nutrizio segurtasunaren, ekosistemekin lotutako zerbitzuen eta giza ongizatearen artean.

**Elikadura-politikek lotura estua dute hirietako beste erronka eta politika askorekin,** hala nola, pobrezia, gizarte eta osasun babesa, higiena eta zerbitzu higieniko-sanitarioak, lurraldearen erabileraren plangintza, garraioak eta merkataritza, sektore energetikoa, irakaskuntza eta hondamendiei aurre egiteko ahalmena. Hori dela eta, funtsezkoa da ikuspuntu integratua, barne-hartzailea, diziplinarteko eta erakunde-artekoa izatea.

**Gizarte zibilak eta sektore pribatuak paper garrantzitsua dute** hiriak elikagaiz hornitzeko —esperientzia, berrikuntza eta kanpainak eskaintzen baitituzte elikagai-sistema iraunkoragoak lortze aldera— eta hirietako elikadura politiketan gizarte-inklusioaren eta giza eskubideen ikuspegiak txertatzeko.

**Gogoan ditugu** hiriekin hartutako konpromisoak: klima-aldaketei aurre egitea; berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko estrategiak eta ekintzak sustatzea; klima-aldaketek elikagaien sistema urbanoetan dituzten ondorioetara egokitzen laguntzea —esate baterako, Hirien Munduko Foroaren hurrengo edizioetan edo Etxebizitzari eta Hiri-Garapen Iraunkorri buruz laster egitekoa den Habitat III

Biltzarrean—, eta, hiri mailako ekimenen bidez, biodibertsitatearen kudeaketa iraunkorra sustatzea, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren esparruan.

**Etorkizunean hiriek eta inguruko lurraldeek paper aktiboa** jokatuko dute nazioarteko zenbait prozesu praktikan jartzeko garaian, hala nola, 2015aren osteko Garapen Iraunkorrerako Agendaren barruko garapen iraunkorreko helmuga eta helburuei dagozkienak. Klima-Aldaketei buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenerako (COP 21) hurrengo negoziazioetan eta Nutrizioari buruzko Nazioarteko Bigarren Biltzarrean aintzat hartuko dituzte eta, gainera, Hondamen-Arriskua Murrizteko 2015aren osteko Esparruan rol garrantzitsua izango dute.

Hori guztia kontuan hartuta, eta "*Planeta elikatzea, bizitzarako energia*" gaitzat duen Expo 2015 dela eta Milanen **boldurik**, honako hau adierazten dugu:

#### GUK, ALKATEOK ETA TOKIKO AGINTARIEN ORDEZKARIOK, KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITUGU HIRIKO ELIKADURA POLITIKARI BURUZKO MILANGO ITUNA SINATZEN DUGULARIK:

1. Elikagai-sistema iraunkor, inklusibo, erresiliente, seguru eta anitzak sortzeko lan egitea, guztion eskura dagoen janari osasungarria bermatzeko, eskubideetan oinarritutako ekintza-esparru batean; helburua da elikagaien hondakinak murriztu eta biodibertsitatea zaintzeaz gain, klima aldaketen eragina arintzea eta horietara egokitzea.
2. Udal eta lurralde mailan sailen eta sektoreen arteko koordinazioa sustatzea eta, bestetik, elikadura-politika urbanoaren irizpideak kontuan hartzea honako alor hauetan: elikagaiei buruzko politikan, programan eta horniduretan; gizarte-babesean; nutrizioan; zuzentasunean; elikagaien ekoizpenean; irakaskuntzan; elikadura-segurtasunean, eta hondakinen murrizketan.
3. Elikadurarekin lotutako udal politikak eta programak haiekin loturaren bat duten nazio-azpiko, nazioko, eskualdeko eta nazioarteko politika eta programekin koherente izan daitezen sustatzea.
4. Elikadura-sistemako sektore guztiak (tokiko aginteak, erakunde tekniko eta akademikoak, gizarte zibila, ekoizle txikiak eta sektore pribatua barne) erakartzea, elikaduraren alorrean politikak, programak eta ekimenak garatu, gauzatu eta ebaluatzearen.
5. Hiri-mailan dauden politikak, planak eta arauak berrikusi eta aldatzea, elikadura-sistema bidezkoagoak, erresilienteagoak eta iraunkorragoak sortzen laguntzeko.
6. Hiri bakoitzean, Ekintza-Esparrua abiapuntutzat hartzea hiriko elikadura sistema propioa antolatzeko; orobat, egindako aurrerapenak partekatzea esku hartzen duten hiriekin, bakoitzaren nazioko gobernuekin eta, egoki bada, nazioarteko erakundeekin.
7. Beste hiri batzuk bultzatzea elikadura-politiken aldeko gure ekintza-esparruan parte hartzera.

#### **Sinadura:**

..... hiria ordezkatur